



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**  
 (2025-10-17/07)

|                           |                                          |
|---------------------------|------------------------------------------|
| <b>Bilkuraren izaera:</b> | Ez ohikoa                                |
| <b>Deialdia:</b>          | 1. deialdia                              |
| <b>Data:</b>              | 2025-10-17                               |
| <b>Lekua:</b>             | Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia |
| <b>Hasiera-ordua:</b>     | 08:28                                    |
| <b>Amaiera-ordua:</b>     | 08:59                                    |

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

**Zinegotziak:**

|                                           |                                           |
|-------------------------------------------|-------------------------------------------|
| Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)            | Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)            |
| Endika Etxebarría Telleria (EH BILDU)     | Ainhua Jayo Madariaga (EAJ-PNV)           |
| Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)       | Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)          |
| Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)             | Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)             |
| Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN) | Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)               |
| Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)           | Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV) |
| Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)              | Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV)             |

**Bertaratu ez direnak:**

Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
 EMPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025  
 Lekua: Bermeon  
 Erregistro unidatea:  
 Erregistro nagusia



Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

**Idazkaria:** Jose Ramon Alberdi Asteinza

### Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2025-09-25 OB (06)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
- 3.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordenantza aldaketa onartzea.
- 4.-Sastar batze tasa onartzea

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2025-09-25 OB (06)

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=35&t=57>

EAJ-PNVk 2025eko irailaren 25eko 06/2025 aktan akats bat dagoela adierazi du.

17. orrialdeko 5. puntuan EAJ-PNV-K AURKEZTUTAKO "ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZTA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN" MOZIOA onartzearen emaitzan GUZANen abstentzioa agertzen da eta ez da zuzena, beraz aurreko aktaren zuzenketa egitea aho batez onartzen da.

5.puntuaren bozketa gehiengo soilaz onartuta gelditzen da EH Bildu-ren kontrako (4) botoekin, GUZAN-en (4) aldeko botoekin eta EAJ-PNV-en (8) aldeko botoekin.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

#### Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidada:  
Erregistro nagusia



## 2.-BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=35&t=114>

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukatela.

## 3.-TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ORDENANTZA ALDAKETA ONARTZEA

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=35&t=124>

### Xedea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordenantza fiskala eguneratzea onartzea.

### Argudioak

Lehenengoa: 7/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren 4. artikulua arabera:

#### “4.artikula. Kuota

4. Udalek artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarritako kuotak gehitu ahal izango dituzte koefiziente bat aplikatuz; koefizientea 3 izango da gehienez.

Udalek koefiziente bat finka dezakete artikulua honetako lehenengo idatz-zatian adierazitako tarifen koadroko ibilgailu mota bakoitzerako, bai eta ibilgailu mota bakoitzaren tarte bakoitzerako ere, baina beti ere aurreko paragrafoan finkatutako gehieneko muga gainditu gabe.

5. Udalek, aurreko atalean aipatzen den ahalmena erabiliko ez baldin balute, zerga, aurreko 1. atalean adierazten diren kuoten taularen arabera exigituko da.”

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

#### Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Bigarrena: 7/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren 2.e artikulua eta xedapen iragankorraren arabera, mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako hobaria eskaera arautzen dituzte.

**“2.artikulua. Hobariak eta Salbuespenak.**

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude. Halaber, salbuetsita daude 14 zerga-zalditik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude eta beren erabilera eskusiborako badira. Salbuespen hori inguruabar horiek hala irauten duten bitartean aplikatuko da, eta aplikatu ere desgaitasuna duten pertsonak berek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira batera aplikatu, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

- a') 100eko 33 eta 100eko 65 bitarteko desgaitasun-gradua aitortua izanik mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat hartuko dira mugikortasunjardueren muga azpibaremoan (BLAM) guztira 100eko 25eko mugikortasun-muga edo handiagoa lortzen dutenak. Azpibaremo hori urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak arautzen du, zeinak desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen baitu.
- b') 100eko 65eko desgaitasun-gradua edo handiagoa duten pertsonak.

14 zerga-zaldien muga hori, betiere ibilgailua gorpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago, ez zaie aplikatuko aurreko a') eta b') letretan aipatutako pertsonen, baldin eta mugitzeko gaitasuna murriztua izanik mugikortasun- jardueren muga azpibaremoan (BLAM) guztira 100eko 75eko mugikortasun- muga edo handiagoa lortzen badute.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**  
JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311  
Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidada: Erregistro nagusia



Azpibaremo hori urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak arautzen du, zeinak desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen baitu.

Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 100eko 65eko desgaitasungradua edo handiagoa duen pertsonaren bat guraso-ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura dutela egiaztatzen duten titularren ibilgailuak ere. Ibilgailu bat baino gehiagoren titularrak badira, salbuespena bakar bati aplikatuko zaio.”

#### “XEDAPEN IRAGANKORRAK

Bigarrena: Desgaitasuna egiaztatzeko araubide iragankorra, foru-arau honen 2.1 artikulua e) letran aurreikusitako salbuespena aplikatzeko.

Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat desgaitasun-egoera aitortu zaien zergadunei, desgaitasunaren aitortpen, deklarazio edo kalifikazio berririk ez dagoen bitartean, foru-arau honen 2.1 artikulua e) letran aurreikusitako salbuespena aplikatuko zaie, salbuespen horretarako 2023ko abenduaren 31n indarrean zegoen araubidearen arabera.”

#### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo soilaz, EH BILDUren (4) eta GUZANen (4) aldeko botoekin eta EAJ-PNVren (7) kontrakoekin, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako salbuespena Foru Arauan zehazten diren mugitzeko gaitasun murriztuaren baremoak eguneratzea. Xedapen iragankor bat baremoen aitortpena oraindik eguneratuta ez duten pertsonentzat, aurreko baremoak baliogarritzat arautzeko xedapen iragankor bat ezartzea onartzea.

#### Lehen:

#### 4. artikulua. Salbuespenak:

E) Mugitzeko eragozpenak dauzkaten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak (horrela direla joko da, horien pisu hila 350 kg.-tik gorakoa ez denean, eta ibilgailuaren sorrerako baldintzen arabera,

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

| Sinadurea eta data                                                                                                                                                                                                                                                                             |  | DOCUMENTO: 20251335311                                                            |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|-----------------------------------------------------------------------------------|
| JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46 |  | Datea: 22/10/2025<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea:<br>Erregistro nagusia |



zelaian, 45 km/or. baino abiadura handiagoa hartzen ez duenean, eta bereziki, ezgaitasun edo disfuntzio fisikoa lukeen pertsonaren erabilerarako proiektatua eta egina izatea –eta ez soilik egokitua–).

Era berean, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baino ez direnak. Salbuespen hori, inguruabar horiek mantentzen diren heinean aplikatuko zaie, minusbaliotasuna duen pertsonak gidatutako ibilgailuei, zein horien garraiora erabiltzen direnei.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko horien onuradun diren subjektu pasiboek ibilgailu batengatik baino gehiagorengatik aldi berean.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauexek hartuko dira ezgaitasuna duten pertsonatzat:

a') %33 - 65 bitarteko minusbaliadun gradua onartuta daukatela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbaliadun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago daukatenak.

b') %65eko minusbaliadun gradua edo handiagoa daukaten pertsonak

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko II. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Eskariarekin batera dokumentu zehatz hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Minusbaliadun gradua edo, kasuan, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukala egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak emandakoa. Ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboaren kopiarekin.
- Minusbaliaduna bera gidaria ez denean, ibilgailuaren gidaria nor den edo nor izango den adierazi beharko du, eta bere gida baimenaren fotokopia aurkeztu.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Zinpeko aitortpena, ibilgailua minusbaliadunak baino ez duela erabiliko adierazten duena eta ibilgailua zertarako erabiltzen den frogatu.
- Ibilgailuen zerga zorrik ez daukaren egiaztatzea.

Orain:

**4. artikulua. Salbuespenak:**

E) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude 14 zerga-zalditik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude eta beren erabilera eskusiborako badira. Salbuespen hori inguruabar horiek hala irauten duten bitartean aplikatuko da, eta aplikatu ere desgaitasuna duten pertsonak berek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira batera aplikatu, hots, onuradun bati ez zaio bat baino aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

a') 100eko 33 eta 100eko 65 bitarteko desgaitasun-gradua aitortua izanik mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat hartuko dira mugikortasun-jardueren mugen azpibaremoan (BLAM) guztira 100eko 25eko mugikortasun-muga edo handiagoa lortzen dutenak. Azpibaremo hori urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak arautzen du, zeinak desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen baitu.

b') 100eko 65eko desgaitasun-gradua edo handiagoa duten pertsonak.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidada: Erregistro nagusia



14 zerga-zaldien muga hori, betiere ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago, ez zaie aplikatuko aurreko a') eta b') letretan aipatutako pertsoneri, baldin eta mugitzeko gaitasuna murriztua izanik mugikortasun- jardueren mugen azpibaremoan (BLAM) guztira 100eko 75eko mugikortasun- muga edo handiagoa lortzen badute.

Azpibaremo hori urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak arautzen du, zeinak desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen baitu.

Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 100eko 65eko desgaitasungradua edo handiagoa duen pertsonaren bat guraso-ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura dutela egiaztatzen duten titularren ibilgailuak ere. Ibilgailu bat baino gehiagoren titularrak badira, salbuespena bakar bati aplikatuko zaio.

Eskariarekin batera dokumentu zehatz hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Minusbaliadun gradua edo, kasuan, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukala egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak emandakoa. Ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboaren kopiarekin.
- Minusbaliaduna bera gidaria ez denean, ibilgailuaren gidaria nor den edo nor izango den adierazi beharko du, eta bere gida baimenaren fotokopia aurkeztu.
- Zinpeko aitortpena, ibilgailua minusbaliadunak baino ez duela erabiliko adierazten duena eta ibilgailua zertarako erabiltzen den frogatu.
- Ibilgailuen zerga zorrik ez daukaren egiaztageria.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa: Desgaitasuna egiaztatzeko araubide iragankorra, foru-arau honen 2.1 artikulua e) letran aurreikusitako salbuespena aplikatzeko.

Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat desgaitasun-egoera aitortu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

### Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1





zaien zergadunei, desgaitasunaren aitorten, deklarazio edo kalifikazio berririk ez dagoen bitartean, foru-arau honen 2.1 artikularen e) letran aurreikusitako salbuespena aplikatuko zaie, salbuespen horretarako 2023ko abenduaren 31n indarrean zegoen araubidearen arabera.

a') %33 - 65 bitarteko minusbaliadun gradua onartuta daukatela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbaliadun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago daukatenak.

b') %65eko minusbaliadun gradua edo handiagoa daukaten pertsonak

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko II. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

#### BIGARRENA: ZERGA TASAREN IGOERA

2025. ekitaldian trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga tasen bidez bildutako diru-sarrerak honako hauek izan dira:

| Tarifen Taula                                   | ALTA        | TARIFAK<br>INDARREAN |
|-------------------------------------------------|-------------|----------------------|
| <b>TURISMO</b>                                  | <b>7374</b> | <b>767.708,19</b>    |
| 12-13,99 zerga-zaldi                            | 2975        | 376.508,70           |
| 14-15,99 zerga-zaldi                            | 267         | 46.675,53            |
| 16-19,99 zerga-zaldi                            | 355         | 81.323,55            |
| 20 zerga-zaldi baino gehiago                    | 68          | 18.449,66            |
| 8 zerga-zaldi baino gutxiago                    | 461         | 12.294,56            |
| 8-11,99 zerga-zaldi                             | 3248        | 232.456,19           |
| <b>MOTOZIKLETAK</b>                             | <b>986</b>  | <b>40.941,04</b>     |
| 1.000 z.k.tik aurrerako motozikletak            | 73          | 10.734,79            |
| 125 z.k.rainoko motozikletak                    | 400         | 4.312,69             |
| 125 z.k.tik 250 z.k.ra bitarteko motozikletak   | 124         | 2.021,28             |
| 250 z.k.tik 500 z.k.ra bitarteko motozikletak   | 128         | 4.173,20             |
| 500 z.k.tik 1.000 z.k.ra bitarteko motozikletak | 261         | 19.699,08            |

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**  
JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311  
Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidadea:  
Erregistro nagusia



|                                                         |             |                   |
|---------------------------------------------------------|-------------|-------------------|
| <b>KAMIOIAK</b>                                         | <b>662</b>  | <b>76.995,74</b>  |
| 1.000kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak  | 177         | 30.637,95         |
| 3.000 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak | 13          | 2.317,98          |
| 9.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak             | 10          | 2.881,60          |
| Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak              | 462         | 41.158,21         |
| <b>ZIKLOMOTORRAK</b>                                    | <b>214</b>  | <b>2.320,11</b>   |
| Ziklomotorrak 0-49 cc                                   | 214         | 2.320,11          |
| <b>TRAKTOREAK</b>                                       | <b>197</b>  | <b>7.569,49</b>   |
| 16 zerga-zaldi baino gutxiagoak                         | 151         | 4.418,26          |
| 16-25 zerga-zaldi bitartekoak                           | 26          | 776,69            |
| 25 zerga-zalditik gorakoak                              | 20          | 2.374,54          |
| <b>ATOIAK /ERDI-ATOIAK</b>                              | <b>65</b>   | <b>2.404,18</b>   |
| 1.000kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak  | 25          | 1.082,02          |
| 3.000 kg-tik aurrerako zama erabilgarrikoak             | 8           | 1.093,89          |
| Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak              | 32          | 228,27            |
| <b>AUTOBUSAK</b>                                        | <b>27</b>   | <b>7.841,06</b>   |
| 21 plazatik 50era bitartekoak                           | 9           | 2.279,97          |
| 21 plazatik beherakoak                                  | 1           | 177,87            |
| 50 plazatik aurrerakoak                                 | 17          | 5.383,22          |
| <b>Total general</b>                                    | <b>9525</b> | <b>905.779,81</b> |

Foru Arauaren arabera aplikatu daitekeen tasa maximoa 4.1. artikuluaen tarifa-koadroaren kuotak bider 3 koefizientearen emaitza izango da. Bermeoko Udalak ordenantza fiskalean araututako kuotak maximo honen azpitik daudenez tasen igoera proposatzen da. Tasen azkeneko eguneraketa 2019.ekitaldian indarrean sartu zen.

Goian aipatutakoa kontuan hartuta honako erabakia hartzen da:

- %11ko igoera: onartutako tasaren azken igoera 2022an sartu zen indarrean. 2022-2025eko KPI-a % 15,5ekoa da, baina zergadunaren karga fiskala murrizteko % 11ko igoera onartzen da.

Diru sarrerak:

| Proposamena         | Diru sarrera |
|---------------------|--------------|
| 2025ko Diru Sarrera | 905.779,81   |
| %11ko IGOERA        | 1.005.309,53 |

Tarifa taulen konparaketa, kuota bakoitzean igoeraren zenbatekoa aztertzeko.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



| Zerga Tarifa                                                                 | ALTA         | O.F. 2022 (€) | PROPOSAMEN A %11 igoera | ALDEA | ALDAKUNTZA |
|------------------------------------------------------------------------------|--------------|---------------|-------------------------|-------|------------|
| <b>A) Turismoak</b>                                                          | <b>7.374</b> |               |                         |       |            |
| 8 zerga-zaldi baino gutxiago                                                 | 461          | 26,94         | 29,90                   | 2,96  | 11,00%     |
| 8-11,99 zerga-zaldi                                                          | 3248         | 72,76         | 80,76                   | 8,00  | 11,00%     |
| 12-13,99 zerga-zaldi                                                         | 2975         | 128,33        | 142,45                  | 14,12 | 11,00%     |
| 14-15,99 zerga-zaldi                                                         | 267          | 179,66        | 199,42                  | 19,76 | 11,00%     |
| 16-19,99 zerga-zaldi                                                         | 355          | 231           | 256,41                  | 25,41 | 11,00%     |
| 20 zerga-zaldi baino gehiago                                                 | 68           | 282,32        | 313,38                  | 31,06 | 11,00%     |
| <b>B) Autobusak</b>                                                          | <b>27</b>    |               |                         |       |            |
| 21 plazatik beherakoak                                                       | 1            | 177,87        | 197,44                  | 19,57 | 11,00%     |
| 21 plazatik 50era bitartekoak                                                | 9            | 253,33        | 281,20                  | 27,87 | 11,00%     |
| 50 plazatik aurrerakoak                                                      | 17           | 316,66        | 351,49                  | 34,83 | 11,00%     |
| <b>C) Kamioiak</b>                                                           | <b>662</b>   |               |                         |       |            |
| Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak                                   | 462          | 90,29         | 100,22                  | 9,93  | 11,00%     |
| 1.000kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak                       | 177          | 177,87        | 197,44                  | 19,57 | 11,00%     |
| 3.000 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak                      | 13           | 253,33        | 281,20                  | 27,87 | 11,00%     |
| 9.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak                                  | 10           | 316,66        | 351,49                  | 34,83 | 11,00%     |
| <b>D) Traktoreak</b>                                                         | <b>197</b>   |               |                         |       |            |
| 16 zerga-zaldi baino gutxiagoak                                              | 151          | 37,73         | 41,88                   | 4,15  | 11,00%     |
| 16-25 zerga-zaldi bitartekoak                                                | 26           | 59,29         | 65,81                   | 6,52  | 11,00%     |
| 25 zerga-zalditik gorakoak                                                   | 20           | 177,87        | 197,44                  | 19,57 | 11,00%     |
| <b>E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdi-atoiak:</b> | <b>65</b>    |               |                         |       |            |
| Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak                                   | 32           | 37,73         | 41,88                   | 4,15  | 11,00%     |
| 1.000kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak                       | 25           | 59,29         | 65,81                   | 6,52  | 11,00%     |
| 3.000 kg-tik aurrerako zama erabilgarrikoak                                  | 8            | 177,87        | 197,44                  | 19,57 | 11,00%     |
| <b>F) Gainerako ibilgailuak:</b>                                             | <b>1.200</b> |               |                         |       |            |
| Ziklomotorrak 0-49 cc                                                        | 214          | 10,71         | 11,89                   | 1,18  | 11,00%     |
| 125 z.k.rainoko motozikletak                                                 | 400          | 10,71         | 11,89                   | 1,18  | 11,00%     |
| 125 z.k.tik 250 z.k.ra bitarteko motozikletak                                | 124          | 16,97         | 18,84                   | 1,87  | 11,00%     |
| 250 z.k.tik 500 z.k.ra bitarteko motozikletak                                | 128          | 32,35         | 35,91                   | 3,56  | 11,00%     |
| 500 z.k.tik 1.000 z.k.ra bitarteko motozikletak                              | 261          | 75,03         | 83,28                   | 8,25  | 11,00%     |
| 1.000 z.k.tik aurrerako motozikletak                                         | 73           | 144,87        | 160,81                  | 15,94 | 11,00%     |



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

#### Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Data: 22/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



HIRUGARRENA: Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da Ordenantza automatikoki behin betiko onartuko dela.

#### 4.- SASTAR BATZE TASA ALDAKETA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=35&t=1102>

Alkateak adierazi du “Sastar batze tasa aldaketa” diktamen barik dagoela, eta, horregatik, lehenik eta behin, puntua gai zerrendan sartu izana berretsi behar dela, Udalbatzen Antolaketa, Jardunbidea eta Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Erregelamenduko 82.3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bozketa egin ostean udal Osoko Bilkurak, aho batez, “Sastar batze tasa aldaketa” puntua gai zerrendan sartzea berretsi du.

#### Xedea

Sastar batze tasa aldaketa onartzea.

#### Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko abenduaren 13an sastarrak batzeagatik tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren aldaketaren behin betiko onespena argitaratu zen. Aldaketak aztertzen duen txosten ekonomikoaren arabera, urtean zehar sastar batzeagatik zerbitzuak 377.816,39€-ko defizita zuen, kuotetatik zetozen diru-sarrerak ez baitzuten zerbitzuaren benetako kostua estaltzen.

Egoera hori partzialki zuzentzeko, 2024ko abenduan kuoten berrikuspen bat onartu zen, 2025eko urtariletik indarrean zegoena. Berrikuspen horrek, batez beste, %21,22ko igoera ekarri zuen epigrafe batzuetan; beste batzuetan, berriz, konstanteak izan ziren , eta horietako bi murriztu ere egin ziren.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**  
JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311  
Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



|                     | TXOSTEN EKONOMIKOA |
|---------------------|--------------------|
| Bilketa             | 649.266,17         |
| Tratamendua         | 917.071,38         |
| Zerbitzu totala     | 1.566.337,55       |
| Tasen Diru Sarrerak | 1.188.521,16       |
| Defizita            | 377.816,39         |

Bigarrena: Martxoaren 20ko 19/2025 Foru Dekretua indarrean sartzeak 2025eko apirilaren 1etik aurrera hiri-hondakinak tratatzeagatik ezarritako prezio publikoak eguneratu zituen. Legediaren aldaketa horren ondorioz, hondakinen tratamenduagatik fakturak kostu gehigarria jasango zuen. 2025eko ekainaren 18an Erakunde eta Kontu Batzordeak egindako bileran kostu gehigarri hori estaltzeko 2025eko laugarren hiruhileko tasetan igoera onartu zen.

Aurrekontuaren gastuaren eta arau-aldaketaren ondoriozko gehikuntzaren arteko aldea estaltzeko tasetan oinarritutako diru-sarrerak ikertu ziren.

|                                              |                      |
|----------------------------------------------|----------------------|
| Hondakinen tratamendu fakturaren aurrekontua | 560.000,00<br>€      |
| Faktura igoeraren aurreikuspena              | -<br>704.656,79<br>€ |
| Kostu gehigarria                             | -<br>144.656,79<br>€ |

| Diru-Sarrerak                         | Zenbatekoak                     |
|---------------------------------------|---------------------------------|
| 1. 2. eta 3. hiruhileko diru-sarrerak | 1.063.184,13 € (354.394,71€ x3) |
| 4. hiruhileko diru-sarrerak           | 501.302,14€                     |
| 2025. ekitaldiko diru-sarrera osoa    | 1.564.486,27€                   |

\*Bildutako diru-sarrera 4.hiruhileroko tasak urte osoan aplikatzean: **2.005208,56€.**

Hirugarrena: Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen 11. artikulua araberak, tokiko erakundeek hondakinen kudeaketaren kostuak estaltzen dituen tasa espezifiko, bereizi eta ez-defizitarioa ezarri behar dute, kostu erreal, zuzen eta zeharkakoak barne hartuta. Horrek kostu efektiboaren azterketa sakonagoa egitea eskatzen du eta, horren ondorioz, tasen egitura berrantolatzea, araudiaren printzipioak aplikatzeko. Aipatutako lege-eskakizunak betetze aldera, erabaki proposamen hau oinarritzen den txosten tekniko ekonomiko bat landu da. Bertan,

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Data: 22/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



proposamenean zehar aipatzen diren datu guztien kalkuluak eta zehetasunak garatzen dira.

### Argudioak

Lehenengoa: Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 26. artikulua.

**“26. artikulua.** Tasak ezartzeko erabakiak: txosten tekniko-ekonomikoa

Txosten tekniko-ekonomikoak ikusirik hartu beharko dira jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen ondoriozko tasak ezartzeko erabakiak nahiz zerbitzu berriak osorik edo zati batez finantzatzekoak; txosten horietan, agerian jarriko da halako zerbitzuen merkatu-balioa edo haien kostua nola estaliko aurreikusten den, hurrenez hurren.

Ez da aurreko lerroaldean aipatzen den txosten tekniko-ekonomikoa behar errebalorizazio edo eguneratze orokorrek eragindako erabakiak hartu nahi badira, ez eta tasen zenbatekoa gutxitu nahi denean ere, salbu eta haiei dagozkien zerbitzuen kostua nabarmen gutxituko denean.”

Horren arabera, zerbitzu berriak finantzatzeko tasak ezartzeko erabakiak zerbitzu horien kostua estaltzea aurreikusten dela adierazten duten txosten tekniko ekonomikoak ikusi ondoren hartu beharko dira. Artikulu horren arabera, ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan aipatutako txosten tekniko ekonomikoa aurkeztea, baldin eta izaera orokorreko errebalorizazioek edo eguneratzeek eragindako akordioak hartzen badira, edo tasen zenbatekoa murrizten bada, dagokion zerbitzuaren kostua nabarmen murrizten den kasuan izan ezik.

Hala ere, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen eskakizunak kontuan hartuta, txosten honek aurreko tasen funtsezko aldaketa planteatzen du eta, horregatik, zerbitzuaren kostu eta diru sarrera guztiak berriro kalkulatu dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**  
JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311  
Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Bigarrena: Txosten tekniko ekonomikoak zerbitzuaren kostu erreala identifikatzen du, baliokidetasun printzipioa betetzen dela bermatzeko, tasek, oro har, ez dezaten gainditu Toki Erakundeak jasandako kostu erreal hori.

Halaber, kostu erreala identifikatzeak 7/2022 Legeko 11. artikulua betetzea ahalbidetuko du eta, horren arabera, tasak ez-defizitarioak izan behar dira.

**“Artículo 11.** Costes de la gestión de los residuos.

1. De acuerdo con el principio «quien contamina paga», los costes relativos a la gestión de los residuos, incluidos los costes correspondientes a la infraestructura necesaria y a su funcionamiento, así como los costes relativos a los impactos medioambientales y en particular los de las emisiones de gases de efecto invernadero, tendrán que ser sufragados por el productor inicial de residuos, por el poseedor actual o por el anterior poseedor de residuos de acuerdo con lo establecido en el artículo 104. El Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico podrá realizar estudios para obtener información sobre los criterios para la contabilización de dichos costes, especialmente los relativos a impactos ambientales y a emisiones de gases de efecto invernadero.

2. Las normas que regulen la responsabilidad ampliada del productor para flujos de residuos determinados, de conformidad con el título IV, establecerán los supuestos en los que los costes relativos a su gestión tendrán que ser sufragados, parcial o totalmente, por el productor del producto del que proceden los residuos y cuándo los distribuidores del producto podrán compartir dichos costes.

3. En el caso de los costes de gestión de los residuos de competencia local, de acuerdo con lo dispuesto en el texto refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, las entidades locales establecerán, en el plazo de tres años a contar desde la entrada en vigor de esta ley, una tasa o, en su caso, una prestación patrimonial de carácter público no tributaria, específica, diferenciada y no deficitaria, que permita implantar sistemas de pago por generación y que refleje el coste real, directo o indirecto, de las operaciones de recogida, transporte y tratamiento de los residuos, incluidos la vigilancia de estas operaciones y el mantenimiento y vigilancia posterior al cierre de los vertederos, las campañas de concienciación y comunicación, así como los ingresos derivados de la aplicación de la responsabilidad ampliada del productor, de la venta de materiales y de energía.

4. Las tasas o prestaciones patrimoniales de carácter público no tributario podrán tener en cuenta, entre otras, las particularidades siguientes:

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unitadea:  
Erregistro nagusia



- a) La inclusión de sistemas para incentivar la recogida separada en viviendas de alquiler vacacional y similar.
- b) La diferenciación o reducción en el supuesto de prácticas de compostaje doméstico o comunitario o de separación y recogida separada de materia orgánica compostable.
- c) La diferenciación o reducción en el supuesto de participación en recogidas separadas para la posterior preparación para la reutilización y reciclado, por ejemplo en puntos limpios o en los puntos de entrega alternativos acordados por la entidad local.
- d) La diferenciación o reducción para las personas y las unidades familiares en situación de riesgo de exclusión social.

5. Las entidades locales deberán comunicar estas tasas, así como los cálculos utilizados para su confección, a las autoridades competentes de las comunidades autónomas.”

Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11.3 artikulua arabera, atal honetan islatzen da hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko eragiketen kostu erreala, zuzena edo zeharkakoa, barne hartuz eragiketa horien zaintza, zaborteak itxi osteko mantentzea eta zaintza, kontzientziazio eta komunikazio kanpainak, eta ekoizlearen erantzukizun handituaren, materialen salmentaren eta energiaren aplikazioaren ondoriozko sarrerak.

Hirugarrena: EAEko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko 1/2007 Legegintza Dekretuko 17. artikuluaekin bat etorritik, kontuan hartzen dira zuzeneko eta zeharkako kostuak, finantza kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala badagokio, hondakinak biltzeko zerbitzuaren arrazoizko garapena eta mantentzea bermatzeko beharrezkoak direnak, hori guztia ordainduko duen aurrekontua edo erakundea edozein dela ere.

**“17. artikulua.** Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

1. Jabetza publikoa nork beretzat erabiltzeagatik edo jabetza horri aprobetxamendu bereziren bat ateratzeagatik ordaindu beharreko tasek guztirako kostua izango dute muga: ezin dute dagokion merkatuan duten balioa edo erabileraren edo aprobetxamenduaren onurari dagokion balioa gainditu.

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**  
JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311  
Data: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia





Meatzetarako edo hidrokarburoetarako baimen edo kontzesioen kasuan, eskubidearen xede den lur-eremua hartuko da kontuan.

2. Zerbitzu batengatik edo jarduera batengatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoak ezingo du, guztira, zerbitzu horren edo jarduera horren benetako kostua edo ustezko kostua gainditu, ez eta jasotako prestazioaren balioa ere.

Zenbateko hori zehazteko, kostu zuzenak eta zeharkakoak hartuko dira kontuan, eta are beste hauek ere: finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala balegokio, tasa ordaindu beharra eragin duen zerbitzua edo jarduera hori arrazoizko era batean ematen jarraituko dela ziurtatzeko beharrezkoak direnak. Eta, hori guztia, zerbitzu horiek ordaintzeko baliatzen den aurrekontuaren konturik egin gabe. Subjektu pasiboak tasaren zenbatekoa tasaren onura sozialaren kontzeptura hurbilarazteko egiten dituen jarduera, ekintza edo zerbitzuek dakartzaten kostu sozialak edo onura sozialak ere kontuan hartuko dira, beti.

3. Ordaindu beharreko kuota prozedura hauetako batez ezar daiteke: kopuru finko bat izendatu daiteke kuotatzat; zerga-oinarria eratzen duten kopuruei aplikatu beharreko karga-tasa bat ezar daiteke; edo bi prozedura horiek erabil daitezke, batera.

4. Jabari publikoa norberarentzat erabiltzeak edo hari aprobetxamendu berezia ateratzeak jabari publikoa suntsitzea edo andeatzea dakarrenean, eta suntsitze edo andeatze hori aski neurri handian eta tasaren beraren zenbatekoa arautzen duten arauetan aurreikusi gabeko era batean egiten bada, onuradunak konponketaren edo berreraikuntzaren gastu guzti-guztiak ordaindu beharko ditu. Betebehar horrek ez du kentzen tasa ordaintzeko betebeharra.

Kalteak ezin konponduzkoak badira, kalte-ordaina suntsitutako ondasunen balioaren adinakoa edo ondasunei eragindako hondamenaren zenbatekoaren adinakoa izango da.”

Laugarrena: Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 25.2 artikulua araber, zerbitzuaren edo jardueraren mantentzea eta zentzuzko garapena onartutako aurrekontuaren eta proiektuaren araber kalkulatzeko da.

**“25. artikulua. Zerga-kuota.**

(...)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1

**Sinadurea eta data**

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 21/10/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2025 10:43:46

DOCUMENTO: 20251335311

Fecha: 22/10/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014600F0009Y8U9E2R6Y1



2. Oro har, eta aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, zerbitzu bat edo jarduer bat egiteagatik ezarritako tasen zenbatekoa ezin izan daiteke, osotasunean harturik, delako zerbitzu edo jardueraren benetako kostua edo aurreikusten den kostua baino handiagoa, ezta, halakorik ezean, jasotako prestazioaren balioa baino handiagoa ere.

Zenbateko hori zehazteko, zuzeneko nahiz zeharkako kostuak hartuko dira kontuan, are finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasapeko zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arrazoizko garapena bermatzeko beharrezkoak direnak ere, zenbatekoa ordaintzen duen erakundea edo aurrekontua edozein delarik ere. Hortaz, organo eskudunak onetsitako aurrekontu eta proiektuaren arabera kalkulatu da zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arrazoizko garapena.”

Bosgarrena: Txosten hau egiteko, lhobek, Udalsarea 2030en esparruan, argitaratutako 'Udal hondakinen tasak egiteko gida' erreferentziatzat hartu da. Erabaki proposamena zerbitzuaren kostu osoaren kalkuluetan eta tasa egituratzeko modu berrian oinarritu da.

#### ZERBITZUAREN KOSTU OSOAREN LABURPENA

Hondakinak biltzeko zerbitzuaren benetako kostua 2.474.186,36 eurokoa da.

| Guztizko kostua      | 2.474.186,36€ |
|----------------------|---------------|
| Kostu zuzenak        | 1.928.209,97€ |
| Zeharkako kostuak    | 579.124.77€   |
| • Egiturazko kostuak | • 450.341,75€ |
| • Bitarteko kostuak  | • 128.783,03€ |
| Diru-Sarrerak        | 33.147,38€    |

- Hurrengo taulan, txostenean aztertutako zuzeneko kostuen aurreikuspenak eta 2024ko kitapenaren obligazioak aipatzen dira.

| KONTZEPTUA                                                   |                                                 |             | ZENBATEKOA    | 2024.Gastuen egiterapen ekonomiko funtzionala |
|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|-------------|---------------|-----------------------------------------------|
| a. Langile gastuak                                           |                                                 |             | 480.206,73€   | 415.435,05€€                                  |
| b. Gastu arruntak (ondasunak eta zerbitzuak)<br>1.415.148,69 | Bilketa eta garraioa                            |             | 656.775,45€   | 327.504,81€                                   |
|                                                              | Sastarren tratamendua (zatikien arabera xehatu) |             | 705.500,00€   | 567.178,15€                                   |
|                                                              | c.Kontsumoak                                    | Bestelakoak | 852,81€       | 852,81€                                       |
